

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2024ko otsailaren 29a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:00

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, udal-langileen eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien %0,5eko igoera gehigarria, eragina 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.

- 2.- Orioko Zaharren Babeslekua taberna-jatetxearen zerbitzua eta garbiketa eta mantentze-lana kontratatzeko espedientearen tramitazio-egoeraren berri ematea.
- 3.- Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatzeko kontzesio administratiboa kontratatzeko espedientearen tramitazio-egoeraren berri ematea.
- 4.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL-LANGILEEN ETA KARGUA DEDIKAZIO OSOAREKIN EDO PARTZIALAREKIN BETETZEN DUTEN UDAL-KORPORAZIOKIDEEN ORDAINSARIEN %0,5EKO IGOERA GEHIGARRIA, ERAGINA 2023KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EUDELeK, gaiari buruz, gomendio hau egin du:

Onartzea 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.BI.2.b) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien % 0,5eko gehikuntza osagarria.

Gehikuntza hori 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien gainean aplikatuko da eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2024ko otsailaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udal-langileen eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien %0,5eko igoera gehigarria. Igoera horren oinarrian Estatuaren 2023ko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.BI.2.B) artikuluan ezarritakoa dago. Gehikuntza hori 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien gainean aplikatuko da eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

2.- ORIOKO ZAHARREN BABESLEKUA TABERNA-JATETXEAREN ZERBITZUA ETA GARBIKETA ETA MANTENTZE-LANA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIO-EGOERAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

LEHENA. Orioko udalbatzarrak, 2024ko urtarrilaren 25ean egindako ohiko bilkuran, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen pleguak eta baldintza teknikoen pleguak onartu zituen, Orioko Zaharren Babeslekuaren taberna-jatetxe zerbitzuaren eta garbiketa- eta mantentze-zerbitzuaren kontratazioa arautzeko.

BIGARRENA. 2024ko urtarrilaren 26an argitaratu zen Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman aipatutako zerbitzuak kontratatzeko iragarkia, eta han adierazten zen proposamenak aurkezteko epea 2024ko otsailaren 12ko 14:30ean amaitzen zela.

HIRUGARRENA. Proposamenak aurkezteko epean, proposamen hauek sartu ziren Udalaren Erregistro Orokorrean:

- Maria da Conceicao de Jesus Anastacio / Pyterson de Jesus Morais
- Claudia Patricia Jimenez Moncada / Janet Suyapa Moncada
- Jasmina Espinoza Castro
- 5 Eguzkilore SL
- Flor de Maria Martinez Perez
- Oksana Slavich

LAUGARRENA. 2024ko otsailaren 16an, Kontratazio Mahaiak, jendaurreko ekitaldi batean, B gutun-azalak ireki zituen, «BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKO KUANTIFIKAZIOA BEHAR DUTEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA» izenekoak, lizitatzailerik hauek aurkeztutakoak:

- Maria da Conceicao de Jesus Anastacio / Pyterson de Jesus Morais
- Claudia Patricia Jimenez Moncada / Janet Suyapa Moncada
- Jasmina Espinoza Castro
- 5 Eguzkilore SL
- Flor de Maria Martinez Perez
- Oksana Slavich

BOSGARRENA. Kontratazio Mahaiak, 2024ko otsailaren 20an, B gutun-azaletan jasotako dokumentazioari dagokionez, puntuazio hau eman zuen:

- Maria da Conceicao de Jesus Anastacio / Pyterson de Jesus Morais: 16,50 puntu
- Claudia Patricia Jimenez Moncada / Janet Suyapa Moncada: 19,50 puntu

- Jasmina Espinoza Castro: bere proposamena baztertu egin zen, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen pleguan xedatutakoa ez betetzeagatik; hau da: proposamen ekonomikoa B gutun-azalean sartzeagatik.
- 5 Eguzkilore SL: 20,00 puntu
- Flor de Maria Martinez Perez: 14,00 puntu
- Oksana Slavich: 21,50 puntu

SEIGARRENA. Era berean, 2024ko otsailaren 20an, Kontratazio Mahaiak, jendaurreko ekitaldi batean, C gutun-azalak ireki zituen, «PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA BALIO-JUDIZIOAREN MENPE EZ DAUDEN IRIZPIDEAK» izenekoak, lizitatzailerik hauek aurkeztutakoak:

- Maria da Conceicao de Jesus Anastacio / Pyterson de Jesus Morais
- Claudia Patricia Jimenez Moncada / Janet Suyapa Moncada
- 5 Eguzkilore SL
- Flor de Maria Martinez Perez
- Oksana Slavich

ZAZPIGARRENA. Kontratazio Mahaiak, 2024ko otsailaren 21ean, B eta C gutun-azalean jasotako dokumentazioa baloratu ondoren, puntuazio hau eman zuen:

- Maria da Conceicao de Jesus Anastacio / Pyterson de Jesus Morais: 41,07 puntu
- Claudia Patricia Jimenez Moncada / Janet Suyapa Moncada: 42,06 puntu
- 5 Eguzkilore SL: 28,57 puntu
- Flor de Maria Martinez Perez: 26,86 puntu
- Oksana Slavich: 45,94 puntu

ZORTZIGARRENA. 2024ko otsailaren 26an, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen pleguko proposatzaileen gaitasun tekniko eta profesionalari buruzko 7. artikuluan xedatutakoa betetz, guztira puntuaziorik handiena lortu duen lizitatzailerari (Oksana Slavich) eskatu zitzaion 10 laneguneko epean bere kaudimen tekniko edo profesionala egiazta zezan, udalbatzarrak kontratua adjudikatu aurretik.

Orioko Udala, une honetan, zain dago guztira puntuaziorik handiena lortu duen lizitatzailerik (Oksana Slavich) eman zaion epean bere kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatu dezan Udalaren aurrean. Hori guztia, Kontratazio Mahaiak proposamena egin dezan, ondoren udalbatzarrak adjudikazioa erabakitzeke.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 2. ZENBAKIDUN ERAIKINA OKUPATZEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEAREN TRAMITAZIO-EGOERAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

LEHENA. Orioko udalbatzarrak, 2023ko urriaren 26an egindako ohiko bilkuran, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboaren pleguak eta baldintza teknikoaren pleguak onartu zituen, kontzesio administratiboaren kontratazio hau arautzeko: Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikinean Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko kontratua.

BIGARRENA. 2023ko azaroaren 28an argitaratu zen Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman aipatutako kontzesio administratiboa kontratatzeke iragarkia, eta han adierazten zen proposamenak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 9ko 14:30ean amaitzen zela.

HIRUGARRENA. Proposamenak aurkezteko epean, proposamen hauek sartu ziren Udalaren Erregistro Orokorrean:

- Xanti Irazusta Torno, MOLA MOLA BAR, SL (IFK: B75167544) merkataritza-entitatearen izenean.
- Jurdan Grijalba Ponga, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-entitatearen izenean.

LAUGARRENA. 2024ko urtarrilaren 15ean, Kontratazio Mahaiak, jendaurreko ekitaldi batean, B gutun-azalak ireki zituen, «BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERAKO KUANTIFIKAZIOA BEHAR DUTEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA» izenekoak, lizitatzailerik hauek aurkeztutakoak:

- Xanti Irazusta Torno, MOLA MOLA BAR, SL (IFK: B75167544) merkataritza-entitatearen izenean.
- Jurdan Grijalba Ponga, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-entitatearen izenean.

BOSGARRENA. Kontratazio Mahaiak, 2024ko otsailaren 16an, B gutun-azaletan jasotako dokumentazioari dagokionez, puntuazio hau eman zuen:

- MOLA MOLA BAR, SL (IFK: B75167544) merkataritza-entitateari: 36,25 puntu.
- JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-entitateari: 38,50 puntu.

Segidan, Kontratazio Mahaiak C gutun-azalak ireki zituen, «PROPOSAMEN EKONOMIKOA» izenekoak, lizitatzaille hauek aurkeztutakoak:

- Xanti Irazusta Torno, MOLA MOLA BAR, SL (IFK: B75167544) merkataritza-entitatearen izenean.
- Jurdan Grijalba Ponga, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-entitatearen izenean.

SEIGARRENA. «KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA» izena duten A gutun-azaletako agiriak aztertu ziren ondoren, lizitatzaille hauek aurkeztutakoak:

- Xanti Irazusta Torno, MOLA MOLA BAR, SL (IFK: B75167544) merkataritza-entitatearen izenean.
- Jurdan Grijalba Ponga, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-entitatearen izenean.

MOLA MOLA BAR SL (IFK B75167544) merkataritza-entitateak behar bezala egiaztatu zuen Orioko Udalarekin kontratatzeke gaitasuna eta kaudimena duela.

Aldiz, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B2088798) merkataritza-entitateari, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen pleguko 10. artikuluan xedatutakoa betez, errekerimendua egin zitzaion 2024ko otsailaren 20an, bere kaudimen tekniko edo profesionala modu frogagarrian egiaztatzeke, hau da, gutxienez antzeko ostalaritza-zerbitzuetako negozio bat (taberna-jatetxea) kudeatzen esperientzia duela, azken hiru urteetan, turista asko biltzen diren eremu batean, 1.000.000 eurotik beherakoa ez den zenbateko metatuarekin. Hori egiaztatzeke, 10 egun balioduneko epea ematen zitzaion, aipatutako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egun baliodunetik kontaktzen hasita.

Udalaren errekerimenduari erantzunez, Jurdan Grijalba Pongak, 2024ko otsailaren 26an sartu zituen hainbat agiri Orioko Udalaren Erregistro Orokorrean, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B2088798) merkataritza-entitatearen izenean.

Une honetan, udal-idazkaria arretaz aztertzen ari da JURDAN GRIJALBA, SL merkataritza-entitateak aurkeztutako dokumentazioa, ikusteko ea betetzen duen baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen pleguko 10. artikuluan eskatzen den kaudimen tekniko edo profesionala.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

Inaxio Alguacil zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta hau adierazten du:

- Orioko Udalak lan etengabea egin duela udalbatzar honetan Orioko Zaharren Babeslekua taberna-jatetxearen eta garbiketa- eta mantentze-zerbitzuaren kontratazioa adjudikatu ahal izateko, baina gaiagatik aplikatu beharreko

indarreko araudian xedatutakoa betez, adjudikazioa, nahitaez, 2024ko martxoaren erdialdean egingo den ezohiko udalbatzarrean egin beharko dela.

- Gardentasunaren funtsezko printzipioari jarraituz, espediente hauen tramitazio-egoeren berri eman nahi izan duela Udalak udalbatzar honetan: batetik, Orioko Zaharren Babeslekua taberna-jatetxearen eta garbiketa- eta mantentze-zerbitzuaren kontratazioa, eta, bestetik, Orioko Antilla Hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatzeko kontzesio administratiboaren kontratazioa. Gaur-gaurkoz, bi lizitazio publiko horiek irekita eta adjudikatzeko zain daude.
- Adierazten du, bestalde, udal-idazkariak udalbatzar honetan gai-zerrendako 2. eta 3. puntuetako gaiei buruz emandako azalpenez gain, hau ere esan nahi duela:
 - Lizitatuzaileen kontratazio-gaitasuna egiaztatzeko beharra jasota dagoela, batetik, Udalak onartutako baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboetan eta, bestetik, kontratazio publikoari buruzko araudian.
 - Horretarako, dagozkion errekerimenduak egin dira, Udaleko Kontratazio Mahaiak adjudikazio-proposamena egin ahal izan diezaion udalbatzarrari.
 - Kontratazio Publikoaren arloan indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean xedatutakoa betez, kontratazio askatasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak aplikatu behar dira, udalbatzarrak onartutako adjudikazio-irizpideak bete eta baloratu ondoren.
 - Kontratazio Mahaiak egindako lana nabarmendu nahi duela ere esaten du Inaxio Alguacil zinegotziak.
 - Bukatzeko, adierazten du Orioko Udala ez dela sartuko aipatutako espedienteen kontratazioa dela-eta herrian sortu diren zurrumurruetan.

4.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, bertaratutako inork hitza hartzen ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,